



Arartekoaren 2022R-589-21 Ebazpena, 2022ko otsailaren 24koa. Horren bidez, Ordiziako Udalari gomendatzen zaio berriz azter ditzala Jakintza ikastolari ematen dizkion dirulaguntzak.

Aurrekariak

1. Arartekoak jasotako kexa-idazki batean, bere iritzia eskatu zioten Ordiziako Udalak Jakintza ikastola kooperatibari ematen dizkion dirulaguntzei buruz, bereziki, erakunde horrekin 2017an sinatu zuen hitzarmenaz. Eskaera hori herriak bizi duen hezkuntza-egoerarekin lotu zen, desoreka baitago haur eta lehen hezkuntzan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan ikasleak eskolatzerakoan. Egoera hori dela eta, aldeztu aurretik Arartekoak [gomendio bat](#) egin zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.
2. Kexa izapidetzeko onartzea erabaki ondoren, Arartekoari hasiera batean zentzuzkoa iruditzen zitzaion informazio gehiago biltzen saiatzea; horretarako, laguntza eskatu zion Ordiziako alkateari, honela hain zuzen:

“Ordiziako herri horretako Haur eta Lehen Hezkuntzako funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetako ikasleen banaketan dagoen desorekari buruzko kexak izapidetzeari esker, erakunde honek jakin ahal izan du, Hezkuntza Saileko arduradunek emandako informazioari esker, udal horrek bitartekaritza-prozesu bat abiarazi duela, enpresa espezializatu bat kontratatzearen bidez, eta, horren ondoren, Udalaren Eskola Kontseilua martxan jartzea espero da.

Esan behar dizut, informazio hori jakitearekin batera, kexa berri bat sartu dela erakunde honetan, oraingo honetan, Udalak herriko hezkuntza ekimen itunduaren alde egiten duen lanari buruzkoa. Udal hori hainbat tresnatan oinarritu da, besteak beste, garai hartako alkateak eta Jakintza ikastola kooperatibako bi ordezkari 2017ko uztailaren 13an sinatu zuten hitzarmenaren, zeina, beste daturik ezean, luzatutzat jo behar dugula uste baitugun.

Horregatik, kexa berri hau ikusita, eta erakunde honen balizko esku-hartzea behar bezala bideratu ahal izateko, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 26. artikuluetan aurreikusitakoaren babesean, laguntza eskatzea komeni dela baloratu dut, bitartekaritza prozesu horretan hitzarmen honetan jasotako udal esku-hartzearen edo jarduketaren egokitasunari buruzko eztabaidarik sortu den jakiteko, eta udal horrek





eztabaida honi buruz zer jarrera izan dezakeen jakiteko, azken batean, hezkuntza-itunen sistemaren bidez itundutako ekimen pribatuen finantziazio publiko bikoitzarekiko kezka baita azpian dagoena.”

3. Beharrezko errekerimendua egin ondoren, Ordiziako alkateak txosten bat bidali zuen, erakunde honen eskaerari erantzuteko.. Bertan, udalaren jarduerari buruzko azalpenak emateaz gain (horiek behar bezala aipatuko ditugu gogoeten atalean), honako hau nabarmendu eta agerian jarri nahi izan zen:

“Alde batetik, hezkuntza mahaia eratu dela, eta herriko ikastetxeetako zuzendaritza eta guraso elkarteak, udalarekin biltzeko eta herrian dugun egoerari adostasunetik eta guztion parte-hartzetik, heltzeko forua izango da, beti ere, profesionalen laguntzekin.

Bestetik, eta hitzarmenari dagokionez, aipatu bezala, idazkaria aldatzeko oposaketa prozesua abiatu genuen duela ia urte eta erdi, eta prozesua amaitzean idazkari postua bete eta bi astetara berriro idazkaririk gabe geratu ginen. Azkenean, lortu dugu postua hornitzea, eta bagoaz berriro lan erritmoa eguneratzen.

Egoera horrek eragin zuzena izan zuen eskatu zeniguten hitzarmenari dagokionez, eta horregatik, automatikoki beste lau urteetarako berritzeko arriskua saihesteko, urte betez luzatuko zela jakinarazi zen, urte honetan hitzarmen hori behar bezala txukundu eta burutu ahal izateko, hala balegokio.”

4. Hasierako jarduera hori amaitzeko, Arartekoak komenigarritzat jo zuen kexa egin zuten interesdunei jasotako informazioa helaraztea, eta haiek berriro eskatu zuten Arartekoak espresuki bere iritzia adieraz zezala Jakintza ikastola kooperatibari ematen zaizkion udalaren dirulaguntzei buruz.
5. Behin eta berriz ekite horren ondorioz, Arartekoa Ordiziako Udalak eta Jakintza ikastola kooperatibak sinaturiko hitzarmenaren baldintzak aztertzen hasi zen eta ondorio batzuk atera zituen (horien berri ere emango da gogoeten atalean, alferrikako errepikapenak saihesteko).
6. Azterketa amaitu ondoren, Arartekoak Ordiziako alkateari jakinarazi zizkion ateratako ondorioak, eta haren balorazioak ezagutzeko prest agertu zen. Alabaina, erakunde honek behin eta berriz aukera eman, alkateak ez du inolako baloraziorik bidali gai horretaz.





7. Ebazpen honen idazketa bukatzen ari zela, Arartekoak jakin du, kexagileen bitartez, Ordiziako Udalak iragarki bat argitaratu duela 2022ko otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; bertan jakinarazten denez, Udalbatzak hainbat aldaketa onartu ditu Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren gainean, eta, era berean, Jakintza ikastolarentzat azpiegiturak mantentzeko laguntza bat onartzen da 2022rako.

Gogoetak

1. Ordiziako Udalak eta Jakintza ikastola kooperatibak sinatuko hitzarmena 2017ko uztailaren gauzatu zen eta urtebetez luzatu zen 2021eko apirilean. Bertan zenbait finantza-konpromiso agertzen dira, lehenik hartutako beste erabaki batzuek gain, esate baterako, udal titulartasuneko eraikin batzuk ("San Inazio" eta "Villa Eugenia") lagatzeari buruzkoak, horietan kokatuta baitaude Jakintza ikastola HLBHIPren instalazioak.

Hartutako finantza-konpromisoen artean, honako hauek azaltzen dira:

- "San Inazio" eraikineko ur, argi eta berogailu gastuak.
 - "San Inazio" eraikinean eta bertako instalazioetan mantenu lanak egiteko gastuak.
 - "Villa Eugenia" orubeko garbiketa, gas, elektrizitate eta mantenu lanetarako gastuak.
 - "San Inazio" eraikineko garbiketa gastuak, derrigorrezko hezkuntzari dagokionez.
 - "San Inazio" ikastetxeko atezaintza zerbitzua.
 - "San Inazio" eraikineko inbertsio-gastuen zati bat (fatxadak, igogailua, teilatua, egiturazko elementu zein instalazio orokorren konponketa eta berrikuntzak).
2. Kexa izapidetzean Ordiziako Alkatetzak erakunde honi emandako erantzunean nabarmendu nahi izan da, lehenik, udalak eskumena duela haur hezkuntzako eta oinarrizko hezkuntzako udal titulartasuneko eraikinak kontserbatzeko, mantentzeko eta zaintzeko. Horretarako, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 25.2 n) artikulua aipatu du. Bigarrenik, agerian jarri nahi izan da, halaber, zuzenbide pribatuko subjektuekin hitzarmenak sinatzeko aukera, helburu komun bat lortzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak) 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta, azkenik, aurrekarien 3. puntuan azaldu den bezala, emandako erantzunean, Idazkaritzako lanpostua betetzeko sortu





diren arazoak aipatu dira honako erabaki hau justifikatzeko: oraingo hitzarmena urtebetez luzatzea eta denbora hori kexa sortarazi duena bezalako hitzarmen batek izan beharko lukeen edukia aztertzeko eta berriz pentsatzeko aprobetxatzea.

3. Egia da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 25.2 n) artikulua udalei berezkozat ematen diela baliatu den eskumen hori. Izan ere, lege horren hitzez hitzezkoari jarraiki, udalak edonola ere berezko eskumetzat erabiliko du:

“Participar en la vigilancia del cumplimiento de la escolaridad obligatoria y cooperar con las Administraciones educativas correspondientes en la obtención de los solares necesarios para la construcción de nuevos centros docentes. La conservación, mantenimiento y vigilancia de los edificios de titularidad local destinados a centros públicos de educación infantil, de educación primaria o de educación especial.”

Bestalde, hezkuntza-legeek ere horren antzeko xedapenak ezarri dituzte. Halakoxea da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hamabosgarren xedapen gehigarria. Horren arabera:

“2. Haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxe publikoetarako eraikinen kontserbazioa, mantentzea eta zaintza udalerraren esku egongo da.

3. Estatuak edo autonomia-erkidegoek eskolatze-premiak direla-eta hezkuntza-administrazioen mendeko haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxeak kokatuta dauden udal-jabetzako eskola-eraikinak bigarren hezkuntza edo lanbide-heziketa emateko afektatu behar dituztenean, Udalerriek indarrean dauden xedapenei jarraiki ordaintzen zituzten gastuak beren gain hartuko dituzte, Udalerrien titulartasun demaniala aparte utzi gabe. Arestian xedatutakoa ez da aplikatuko haur- hezkuntzaz eta lehen hezkuntzaz edo hezkuntza bereziaz gain derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa ematen duten udal-jabetzako eskola-eraikinen kasuan. Afektazioa partziala bada, eraginpean hartutako administrazioen arteko lankidetzaz hitzarmena ezarriko da.”

Ilido beretik doa Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarria.





4. Erreparatu behar da bi kasu horietan, erreferentziatzen toki araubideari buruzko legeria nahiz hezkuntza-legeria hartu, dagokion udalari ematen zaion eskumena betiere ikastetxe publikoak mantentzeko dela. Eskumen hori ez da hedatzen, inolaz ere, ikastetxe pribatuetara.

Era berean, garrantzitsua da honako hau zehaztea: Jakintza ikastola HLBHIPren instalazioak bere baitan hartzen dituzten eraikinak udal titulartasunekoak izateak ez du aldarazten ikastetxe horren izaera, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratutako informazioan agertzen denez, ikastetxe hori ekimen pribatu batetik sortua da eta, horregatik, ikastetxe pribatutzat bakarrik jo daiteke.

Izatez, ikastetxearen izaera horrek azaltzen du zergatik heldu ahal izan dion Jakintza ikastola HLBHIPk Estatuan oinarritzko izaerarekin arautu zen itunen araubideari; araubide hori gero Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan garatu zen, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bitartez.

5. Jakina denez, itunen araubide hori eskola bakoitzeko gastuei aurre egiteko modulu ekonomiko baten inguruan gauzatzen da, irakaskuntza publikoaren kostuen antzera, osagai hauek hartzen baititu bere baitan: a) langileen gastuak, b) funtzionamendu gastuak eta mantentzeko eta kontserbatzeko ohiko gastuak, eta c) egiazko inbertsioak birjartzeko gastuak.

Horrela bada, itunen modulu ekonomikoaren osagai horiek Ordiziako Udalak eta Jakintza ikastola kooperatibak sinaturiko hitzarmenean bildu diren finantza-konpromisoekin (orain Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitako dirulaguntzak gehitu behar zaizkie, 2022ko urtarrilaren 27an Udalbatzak onartutako aldaketen arabera) alderatu besterik ez dago hauxe egiaztatzeko: itunen sisteman jada aintzat hartu diren gastu batzuen udal birfinantzaketa dagoela.

Beraz, esan daiteke Ordiziako Udala, oker interpretatutako berezko eskumen batean oinarrituta, hezkuntza-ekimen bat babesten ari dela, eta ekimen hori publikoa ez denez, dagoeneko badaukala hezkuntza-administrazioaren finantzaketa edo laguntza, itunen sistemaren bitartez.

6. Ordiziako Udalaren kasuan, babes hori lehen hartutako beste erabaki batzuei gehitu behar zaie. Erabaki horiei esker, udal titulartasuneko eraikin batzuen erabilera laga da (halako eraikinak dira Jakintza ikastola HLBHIPren instalazioak bere baitan hartzen dituztenak). Aldi berean, babes hori izateko, hitzarmena sinatu duen kooperatibari beste konpromiso batzuk eskatzen zaizkio; horien





artean nabarmentzekoa da Jakintza ikastolak herrian publizitatea egitean, udalaren laguntza eta babesba jasotzen dituela adierazi behar duela, eta, areago, udalaren logotipoa ere erabili behar duela.

Arartekoari beharrezkoa iruditzen zaio Ordiziako Udalak Jakintza ikastolaren kooperatiba titularrekin daukan konpromiso berezi horretaz ohartaraztea (konpromiso hori gutxienez eztabaida daiteke, azaldutako moduan), izan ere, jokaera hori ezin da axola gabekotzat jo, kontuan hartzen bada udalerrriak bizi duen egoera zaila, izan ere, bertan egiaztatzen ari da ikasleak eskolatzean desoreka handia dagoela haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan. Egoera horrek jada eragin zuen, 2019ko azaroan, Ararteko erakundearen gomendio bat.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten dio Ordiziako Udalari

GOMENDIOA

Berriz azter ditzala Jakintza ikastolari ematen zaizkion dirulaguntzak, hezkuntza-itunen sisteman jada aintzat hartzen diren gastuak ez birfinantzatzeko.

